



BUS-G

BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresa garraibide zerbitzu batean oinarrituta dago, autobusetan zehazki.

Oraingoz Euskadi osora garraioa eramateko ahalmena dugu, Gipuzkoatik abiatuta. Etorkizunean beste probintzietan gure zerbitzua ematea pentsatzen ari gara.

Autobusen zerbitzuak egoera espezifikoetan eskeintzen ditu gure enpresak. Zerbitzu hau eskuratzeko, gutxienez 24 ordu lehenago erreserbatu behar da gure autobusak helmuga jakin batera orduan iritsi dezan.

Alde batetik, BUS-G enpresak, umeen eskolako irteerak eraman ditzazke, horretaz gain, herriz herriko zerbitzuak eskeintzen ditugu ere.

Beste alde batetik, gonbidatuak ezkontza-lekura eraman ditzazkegu. Egoera horretaz gain, edonork kontzertu batera joan nahi badu ere, hiriz kanpo dagoen hiri batera eraman ditzakegu.

Bukatzeko, gure enpresaren garraio zerbitzua erabili ahal izateko, gure telefono zenbakira deitu, gure aplikazioa instalatu eta web orria begiratu eta hortik hitz egin.

Autobusaren zerbitzua eskuratzeko pertsona kopuru minimo bat eduki behar da. Alegia, ezin da bakarrik zazpi pertsonentzako 29 plazetako autobus bat eskatu. Kasua hori izatekotan, gehiago ordaindu beharko dute edo ez dute autobusa eskuratu ez delako errentagarria ateratzen. Zerbitzu batengatik 178€ gutxi-gorabehera lortuko ditugu, beraz, zenbat eta pertsona gehiago eskatu, orduan eta diru gutxiago ordaindu beharko du pertsona bakoitzak. 29 plazetako autobusa betetzen bada, pertsona bakoitzak 5€ ordainduko beharko ditu. Autobusa betetzen ez bada, pertsona bakoitzak diru gehiago ordaindu beharko du, errentagarria izateko.

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUA:

Gure enpresa garapen iraunkorreko 7. helburua betetzen du. Energia eskuragarria eta ez kutsatzailearekin lan egiten dugulako, guk erabiltzen ditugun autobusak %100 elektrikoak dira. Ez ditugu gasolinazko autobusak erabiltzen. Gainera, gure autobus bidaiak merkeago ateratzen dira, beste enpresa batzuekin alderatuz gasolinazko autobusak ez erabiltzeagatik, hain zuzen ere.

